



**KALITATE, INGURUMEN ETA LAN-ARRISKUEN PREBENTZIO-POLITIKA
ARABAKO ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA**

Arabako ESlak, bere gain hartzen ditu eta bere egiten ditu, kasu guztietan, Osakidetza erakundeak zehaztutako politikak (Ikus 9/12/2014 jarraibidea) eta konpromisoa hartzen du gure erakundeko jarduerak etengabeko hobekuntzan oinarritutako kudeaketa eta plangintza sistema mantendu eta ezartzeko; halaber, legezko baldintzak betetzeko konpromisoa indartzen du horiek guztiak betearazteko, baita Osakidetzak hitzartutako beste zenbait ere.

Arabako ESlan kontuan hartzen dugu, kalitatearen kudeaketa osasun-arretan, ingurumenean zein lan arriskuen prebentzioan, bere garapen eta ezarpen maila ezberdinetan, faktore estrategikoak direla uste dugulako gure misioan zehaztutako konpromisoak betetzeko.

Arabako ESlaren Zuzendaritzak politika hau definitzen du helburuak berrikusi eta ezartzeko beharrezko den erreferentziazko esparru moduan, erakundearen testuinguruarekin eta helmugarekin bat eginez, baita bere zerbitzuen eta jardueren eragina, garrantzia eta izaera sartuta ere, eta noski, laneko osasun eta segurtasun arriskuen tamaina eta izaera ere bai. Erakundearen eta berau osatzen duten profesional guztien erantzukizuna da gidalero horiek abian jartzea eta betearaztea.

Arabako Esiak kudeaketa sistema bat eratu eta ezarri du indarrean dauden araudietako baldintzekin bat eginda (UNE-EN-ISO 9001, UNE-EN-ISO 14001, UNE-EN-ISO 45001) eta bere gain hartzen ditu bere jardura Politika hori osatzen duten honako oinarritzko printzipio hauek:

- Gure interes taldeen eta bezeroen igurikimenak asebetetzea, horretarako euren beharrak identifikatzeko beharrezko diren prozesuak kudeatzen ditu eta bide batez, ezartzeko diren araudiak eta baldintzak betetzen direla zaindu.
- Osasun legedia, ingurumenarena, eta lan arriskuen prebentzioaren zein ezartzekoak diren erreferentziazko araudiak betetzea, hala nola, erakundeak hitzartzen dituen beste hainbat baldintza ere, bere jardura, ingurumen, laneko osasun eta segurtasun arriskuekin erlazionaturikoak.
- laneko osasun eta segurtasun, ingurumenen eta kalitate sistemaren etengabeko hobekuntza prozesu bat ezartzea, horiek guztiak hobeto burutzeko.
- Enpresa proiektuan pertsonak inplikatzeko, talde lana bultzatuz, formazioa eta komunikazio eraginkorra sustatuz, langileak motibatu eta profesionalen trebakuntza, kalitate asistentzialaren eta pazientearen segurtasuna hobetu asmoz, halaber ingurumen, eta laneko osasun eta segurtasun kontzientzia handitu asmoz.
- Langileen parte hartze eta kontsultarako konpromisoa, baita euren ordezkariena ere.
- Jardueren ingurumen eraginaren eta alderdien kontrola, ingurumena babestearen konpromisoarekin bat eginda.
- Lan baldintza osasungarriak eta ziurrak eskaintzea, lanarekin erlazionaturiko osasun kalte eta lesioak prebenitzeko, beti ere, erakundearen testuinguru, tamaina eta xedearantzako egokiak direnak, baita bere aukeren eta arriskuen berariazko izaerarentzat ere, zein laneko osasun segurtasunerako galzoriak murrizteko eta arriskuak saihesteko konpromisoarekin bat eginik.
- Langile eta enpresa hornitzaileengan arrisku laboralen prebentzio eta ingurumenaren kultura sustatzea, euren jokabideak hobetzeko eta laneko osasun eta segurtasun zein ingurumena babesteko neurriak etengabe ezartzeko
- Politika hau eguneratua mantentzea eta ezartzea, publikoki komunikatuz.

Izpt...: Jesús Larrañaga Garitano

Arabako ESlaren zuzendari kudeatzaile

ARABAKO ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN GERENCIA

Data: 2019/07/31

